BOINAS LA ENCARTADA

Bizkaia

Balmaseda

El Peñueco

María José Torrecilla Gorbea

La Encartada ehun-fabrika 1892an eraiki zuten, Balmaseda kanpoaldean. Marcos Arena indianoak inguruko beste lau enpresari eta merkatari gehiago bildu (Martin Mendia, Juan B. Hernández, Santos Lopez de Letona eta Domingo Otaola) eta akzio bidezko sozietate anonimoa eratu zuen, Bilbon, 500.000 pezetako kapitalarekin. Sozietate horrek era guztietako artileak irun, egin eta manufakturatu zituen, baina negozio-esparru nagusia txapelak izan ziren.

Fabrika eraikitzeko, Balmasedako Peñueco auzoan hainbat lursail erosi zituzten 1890etik aurrera, herrigunetik 2 km ingurura. Orubea erosi zuenean, aurreko bi industrietarako balio izan zuen ur-aprobetxamenduaren gaineko eskubideak ere lortu zituen elkarteak; izan ere, burdinola bat eta, geroago, errota bat egon ziren bertan. Hala, fabrikarako energia lortzeko, neurri batean behintzat, ez zuten arazorik: ia 7 metroko jauzi batek makinei eragiteko beste potentzia ematen zuen. Higiezin nagusia 1892 amaieran bukaturik zegoen, oraingoa baino txikiagoa bazen ere. Bi solairuko lau nabe paralelo eta hiru solairuko zehar-eraikina zituen. Multzo harmoniatsua osatzen dute: bao zabalak dituzten harrizko murruak, forja-

En 1892 se levantó en las afueras de Balmaseda la fábrica textil de La Encartada. El indiano Marcos Arena reunió a otros cuatro empresarios y comerciantes de la zona –Martín Mendía, Juan B. Hernández, Santos López de Letona y Domingo de Otaola– y con un capital de 500.000 pesetas constituyeron en Bilbao una sociedad anónima por acciones que se dedicará a la hilatura, confección y manufactura de toda clase de géneros de lana, fijando su primera línea de negocio en las boinas.

Para construir la fábrica se fueron comprando desde 1890 terrenos en el barrio de El Peñueco de Balmaseda, a unos 2 km del centro de la villa. La sociedad adquiría con la finca los derechos sobre el aprovechamiento de agua que había servido a dos industrias anteriores: una ferrería y más tarde un molino. Así la obtención de energía para la fábrica se encontraba en parte resuelta: un salto de casi 7 m de altura proporcionaría la potencia necesaria para mover la maquinaria. A fines de 1892 el inmueble principal estaba terminado, aunque entonces era más pequeño que el actual. Constaba de cuatro naves paralelas de dos alturas y de un edificio transversal de tres plantas. Muros de piedra rasgados con

zutabeak, adreilu trinkozko gangatiletarako metalezko habexkak, egurrezko zertxak eta solibaburuak. Eraikin tradizionalaren eta teknika berrien erdibidean dago. Beheko aldearen barrualdean biltegiak eta tailer osagarriak ezarri zituzten, baita zeregin zikinetarako gunea ere (garbitzea, koipea kentzea, tindatzea, bolatzea, etab.). Goiko nabeetako solairu osoan, txarrantxatzeko, iruteko eta txapelak eta bestelako puntuzko artikuluak prestatzeko lanak egiten zituzten, baita txikizkako salmentako matazak edo harilak gorde ere. Hiru solairuko zeharkako eraikinean, berriz, behetik gora, turbina hidraulikoa eta ur-galdara, artileen eta txapelen lehortegiak, eta akabera-gunea eta biltegiak zeuden. Summer & Co., etxeak hornitutako gailu mekanikoak gehienbat Ingalaterrako Platt Brothers etxetik ekarria zen (Oldham, Manchester). Makina hauei guztiei errotore hidrauliko bakarretik eragiten zitzaien, ardatzez eta poleaz.

Sortu eta hamabost urtera, fabrika handitu eta alboko bi nabe erantsi zizkioten. Hala, ekoizpen-lerro berria inauguratzeko espazioa lortu zuten (tapakiak eta oihalak). Era berean, biltegiratzeko ahalmen handiagoa lortu zuten beheko solairuan. Ardi-larrua garbitzeko, mekanika-tailerrerako, bilgarri-tailerrerako eta aroztegirako toki gehiago izanik, aurrerantzean autonomia handiagoz lan egin ahal izan zuten. Handitzeak konplexutasun maila eta ekoizpen-ahalmena handitzea ekarri zuenez, jatorrizko Averly turbina aldatu behar izan zuten. Francis turbina berria ipintzeko, hormigoi armatuzko gela berria sortu zuten. Turbina hori Voith etxeak diseinatu eta eraiki zuen La Encartada fabrikarako, 1910ean. Horretaz gain, jatorrizko Edison dinamoaren tokian argia lortzeko alternadore bat ipini zuten.

Urte haietan bukatu zuten, era berean, La Encartada langile-kolonia ere. Lehen etxebizitza-blokea 1893 eta 1894 bitartean eraiki zuten, esparrura sartzeko tokian eta garai bateko burdinolaren horma zaharren gainean. Etxeetan era guztietako erosotasunak ezarri zituzten: zuzeneko suzko xafla-sukaldea, iturriko ura, komun bat etxebizitzako, eta, amplios vanos, columnas de forja, viguetas de metal para bovedillas de ladrillo macizo, solivería y cerchas de madera articulan un conjunto armónico, a medio camino entre la construcción tradicional y las nuevas técnicas. Interiormente la zona inferior se destinó a almacenes, talleres auxiliares y labores sucias (lavado, desengrasado, tinte, batanado, etc.). Toda la planta de las naves superiores acogía cardado, hilatura y confección de boinas y otros artículos de punto, así como madejas u ovillos de venta al por menor. En el edificio transversal, de tres alturas, se alojaban, de abajo arriba, la turbina hidráulica y caldera de agua, secaderos de lana y boinas, y acabado y almacenes. La dotación mecánica, suministrada por Summer & Co., procedía en su mayor parte de la casa inglesa Platt Brothers, de Oldham (Manchester). Todo se accionaba con ejes y poleas desde el único rotor hidráulico.

Apenas quince años después de la fundación, la fábrica se amplió adosando dos nuevas naves laterales. Obtenía así el espacio para inaugurar una nueva línea de producción, la de mantas y paños, y una mayor capacidad de almacenaje en la planta inferior. Más huecos para el desahogo del lavado de vellones o los talleres mecánico, de embalaje y de carpintería permitirían en adelante trabajar con mayor autonomía. La complejidad y mayor capacidad productiva de esta expansión obligó a sustituir la turbina original Averly. Se creó una dependencia en hormigón armado para la nueva turbina Francis que la firma Voith diseñó y construyó para La Encartada en 1910. Además, la primitiva dinamo Edison fue reemplazada por un nuevo alternador aplicado a la iluminación.

Por estas mismas fechas se completa también la colonia obrera de La Encartada. Entre 1893 y 1894 se había construido el primer bloque de viviendas, junto a la entrada del recinto y levantado sobre los viejos muros de la ferrería. Las casas nacieron dotadas de comodidades realmente importantes: cocina de chapa de fuego directo,



Platt Brothers metxadun karda-1892. *(Santi Yaniz)*
Carda mechera Platt Brothers-1892. *(Santi Yaniz)*



Vista general de la nave de hilatura. *(Santi Yaniz)*
Irundegia dagoen nabearen ikuspegi orokorra. *(Santi Yaniz)*

ekoizpenak ahalbidetzen zuenean, fabrikak hornitutako argiztapena, gela bakoitzean bonbilla bat edo bi pizteko. Lehenengo hamabi etxeen ostean, beste zazpi ere eraiki zituzten mende hasieran, errepidearen ondoko bigarren etxebizitza-bloke batean. Haren ondoan auzoari zerbitzu emateko enpresa-kapera txikia zegoen, Guadalupeko Andre Mariari eskainia; lanegunetan, gainera, eskola gisa ere erabiltzen zuten.

Fabrikak 1910 eta 1936 bitartean lortu zuen une gorena: bere produktuak egiteko adina artile mekanikoki iruten zuen (txapelak, biserak, buruko estalkiak, tapakiak...) eta soberakinak hariletan edo matazatan saltzen zituzten. Lantegia 30 edo 40 langile inguru hartzeko sortu bazuten ere, urte haietan 130 ere egon ziren; gainera, langileei eta beren senideei lana somara ere eskaintzen zieten. Lehenengo arazoak Gerra Zibilak ekarri zituen, eta Eusko Jaurlaritzak esku hartu behar izan zuen; hala, ekoizpena bahitu zuen, Euskadiko Armadari egunean 150 tapaki eta beste hainbat artikulu emateko. Gerra bukatu zenean, sailak gainbehera egin zuen, eta 1945 aldean, behin betiko utzi zuten.

1940 eta 1960 bitartean, ekoizpena txapeletara mugatzen joan zen poliki-poliki, nahiz eta jantzi horrek gero eta jarraitzaile gutxiago zituen. Armadetan erabilera orokorra zenez, bermatuta zeukaten nolabaiteko kontsumo-erregulartasuna. Nolanahi ere, sektore militarrean enkante-modalitatea ezarri zuten, eta horrek prezio-lehia eragin zuen, mozkin-marjinak ere murriztuta. Baldintza horiek zirela-eta, ekoizpen-medioetan inbertitu behar izan zuten berriro ere (makinak berritu, ekipo berriak eta ordezko piezak eskuratu). Hala, lantegia oso hipotekatuta gelditu zen. Osatzeko, 50eko hamarkadaren amaieran zuntz sintetikoak merkaturatzen hasi zirenez, zailtasun horiek areagotu egin ziren. Zuntzok gero eta jarraitzaile gehiago eskuratu zituzten pixkanaka, eta naturalak ohiko kontsumotik baztertu zituzten.

agua corriente, un retrete por vivienda e, incluso, cuando la producción lo permitía, iluminación proporcionada desde la fábrica para una o dos bombillas por unidad de habitación. A las doce primeras casas se añadirían a principios de siglo otras siete en un segundo bloque de pisos junto a la carretera. A su lado se alzaba ya la pequeña capilla empresarial para servicio del barrio, dedicada a la Virgen de Guadalupe, que cumplía las funciones de escuela en los días laborables.

Entre 1910 y 1936 la fábrica alcanza su período de máximo esplendor: hila mecánicamente lana suficiente para la confección de sus productos (boinas, viseras, pasamontañas, mantas…) y vende el excedente en forma de ovillos, bobinas o madejas. La fábrica, creada para ocupar a unos 30/40 empleados, alcanza en esos años los 130, y además ofrece trabajo a destajo a las operarias y sus familias. La Guerra Civil supuso un primer período de problemas y provocó la intervención del Gobierno Vasco en la empresa, requisando su producción para proveer de 150 mantas diarias al Ejército de Euskadi y otros varios artículos. Después de la contienda esa sección languideció y se abandonó definitivamente hacia 1945.

Entre 1940-1960 la producción fue progresivamente restringiéndose a la boina, prenda que cada vez más iba perdiendo adeptos. Aunque su implantación generalizada en los ejércitos garantizara una cierta regularidad de consumo, la modalidad de subasta al sector militar impuso competencias de precios reduciendo también los márgenes de beneficio. Con estos condicionantes la reinversión en medios productivos (renovación de maquinaria, adquisición de nuevos equipos y repuestos) se vio seriamente hipotecada. Para acentuar más las dificultades, a partir de fines de los cincuenta irrumpen en el mercado las fibras sintéticas, que fueron ganando paulatinamente partidarios y desplazando de sus consumos habituales a las fibras naturales.

Bestalde, ehun-industriaren deszentralizazio geografikoa ere hasi zen 70eko hamarkadan, ordura arte herri garatuen ondare baitzen: beste toki batzuetan lansari txikiagoak zeudenez, faktoriek kostuak merkatzeko bidea ikusi zuten. Lehia oso handia zen, eta berrikuntza teknologikoak baino ez zuen biziraupena bermatuko. Nolanahi ere, ez zioten horri heldu. Ekoizpen-egitura ere ez zuten garaiz aldatu. Enpresa haria aldian-aldian eskuratzen hasita zegoen arren (selfaktina zaharrekin kostuak asko garestitzen baitziren), ehungintza modernoan prozesuak sektore espezializatutan banatuta zeuden (irundegia, ehundegia eta jantzigintza). Hala, La Encartada fabrikaren eredua, XIX. mendeko estiloko fabrika «integrala», ia desagertuta zegoen.

Faktore horiek guztiak batuta, enpresaren porrota ekarri zuen 80ko krisialdi sakona ulertuko dugu. Sortu eta ehun urtera itxi zituen ateak: 1992ko udan. Fundatzaileek sortu zuten fisonomia eta hornidura tekniko ia berberarekin, multzo honen ibilbidea behin betiko eten eta amaitu zen.

La Encartada fabrikaren balio berezia ondoen adierazten duen alderdietako bat, zalantza izpirik gabe, ondare teknologikoa da: kontserbazio-egoera bikainean dago multzo osoa. Guztia ere XIX. mende amaieratik XX. mendeko lehen hamarkadara bitartekoa da, salbuespenak salbuespen.

Pieza nagusia lehen aipatutako Voith turbina da, ardatz eragileei zuzenean eragiten ziena. Beheko solairuan museoaren ibilgailu-bilduma dago; enpresaren jabetza izan ziren ale batzuk daude bertan (animaliek tiratutako gurdi nostalgikoak, edota oroitzapen asko ekartzen dizkiguten DKW eta Citroën 2 CV furgonetak). Garai bateko Leviatan zaharra ia osorik dago, ardi-larruak xukatzeko arrabola eta gutzi; baita uretan eragiteko porlanezko tina obala ere (orrazien eta irabiagailuen egiturak bakarrik falta dira hor). Tailer osagarriak ezinbestekoak ziren garai hartan; izan ere, ez zen ohikoa ordezko pieza komertzialak eskuratzea, ezta erraza ere. Zura eta metala konpondu edo berregin zitzaketen, oinarrizko tresnak erabilita: tornuak eta zerrak egur eta metalerako, zulagailuak, fresagailuak, karrakatzeko makinak, hortzak zorrozteko makina eta mekanizatuko eta doikuntzako tresna-multzoa. Eta, jakina, prentsak, hortzak, angelu-tolesgailua edo arrabotatzeko makina, enbalatzeko lanetarako. Azken batean, lantegia autonomo izateko behar zen guztia zeukaten, hasieratik amaierara.

Lehenengo solairuan irundegia eta jantzigintza zeuden, eta bertantxe dago makina eta ingeniaritza errepertorio gehientsuena. Artilea pikatzeko eta kardatzeko sortek (hiru ere egon ziren) beharrezko tresna guztiak dauzkate (izpiak kentzeko makina, batuar edo deabruak, irekitzeko eta koipeztatzeko gailuak, eta kardak). Platt Brothers etxearen makinak, Belgikako Celestin Martin etxekoak edota Kataluniako Joaquín Barcina enpresakoak topatuko ditugu. Platt sistemako bi mando selfaktino ere oso egoera onean daude (1892an, inauguratu zutenean, hiru zeuden). Era berean, haria lantzera zuzendutako tresnak ere ugari dira: astalkaiak edo luzetarako astalkatuak, matazetarako eta tindatze aurretiko pausorako; harilkariak (hiru garaitakoak); botila-

En los años setenta se une a este hecho la incipiente descentralización geográfica de la industria textil, hasta entonces patrimonio de los países desarrollados: los salarios más bajos de otros emplazamientos ofrecen a las factorías una forma de abaratar costos. La competencia es tan alta que sólo la renovación tecnológica podría haber garantizado la supervivencia, cambio que no se acometió. Tampoco se llegó a tiempo a la modificación de la estructura productiva. Aunque la empresa había empezado a adquirir regularmente hilo –ya que los costos con las viejas selfactinas se disparaban–, en toda la moderna industria textil se habían separado los procesos en sectores especializados (hilatura, tejeduría, confección) y el modelo de fábrica «integral» al estilo del ochocientos que representa La Encartada ha desaparecido prácticamente.

La conjunción de todos estos factores explica la profunda crisis de los ochenta que condujo a la quiebra de la empresa. Cerraría sus puertas cien años después de su nacimiento: en el verano de 1992. Con casi la misma fisonomía y dotación técnica con la que la concibieran sus fundadores, se interrumpía y truncaba definitivamente la trayectoria vital de todo este conjunto.

Uno de los aspectos que mejor encarnan el valor singular de La Encartada es, sin ningún género de dudas, su patrimonio tecnológico: un conjunto caracterizado por su excelente estado de conservación, instalado en una horquilla cronológica que se mueve entre fines del siglo XIX y primeras décadas del XX con escasísimas excepciones.

Pieza principal es la turbina Voith que ya se ha mencionado, responsable del accionamiento directo de los ejes de transmisión. También la planta baja acoge hoy la colección de vehículos del museo, ejemplares de algunos de los que tuvo en propiedad la empresa (del nostálgico carro de tiro animal a las evocadoras furgonetas DKW y Citroën 2 CV). Se conserva casi completo el antiguo leviatán, con sus rodillos para escurrir los vellones, o la tina oval de cemento para el aclarado, a los que sólo faltan las estructuras de peines y batidores. Por su lado los talleres auxiliares eran parte imprescindible de una época en la que el recurso a los repuestos comerciales no era ni habitual ni fácil. Madera y metal podían ser reparados o reproducidos con el concurso de su dotación básica: tornos y sierras para madera y metal, taladros, fresadora, limadora, afiladora de cuchillas y un conjunto de herramientas de mecanizado y ajuste. Y, por supuesto, prensas, cuchillas, dobladora de ángulos o desgruesadora, aplicadas a tareas de embalaje. Todo, en definitiva, para conseguir que de principio a fin la fábrica pudiera ser autónoma.

La primera planta se destinaba a hilatura y confección y concentra la mayor parte del repertorio de maquinaria e ingeniería que singularizan este ejemplar. Los surtidos de picado y cardado de la lana –hubo hasta tres– cuentan con toda la dotación necesaria (desde desmotadora, batuar o diablo y abridora-engrasadora hasta las cardas), donde alternan máquinas originales de Platt Brothers con las belgas Celestin Martin o las catalanas de Joaquín Baciana. También se conservan en muy buen estado dos mulas selfactinas, sistema Platt, de las tres con las que se inauguró en 1892. Igualmente el elenco de artefactos destinados a la manipulación del hilo es exhaustivo: devanaderas o aspares longitudinales para madejas y paso previo al teñido, ovilladoras

hariletako mozorkariak eta anezka-ardatzetarako mozorkaria; harien tolesgailu jarraitua edota ardatzetarako eta matazetarako kolatzeko makina soilak.

Hortik abiatuta, jantzigintzan edo ehungintzan jarduten zuten, eta fabrika bi ataletan banaturik zegoen. Batetik trikotatzeko makinak edota txapel-ehungailuak daude. Ehungailu lerrozuzen bikoitzak gordeta daude; aldi berean hamar txapel bitarte hartzen zituzten luzeagoen tokian ipini zituztenak, alegia. Lehenik eta behin, Belgika aldetik ekarritako teknologiadun unitate bikoitzekin berritu zituzten, eta, geroago, teknikari kataluniarrek hamabost unitate gehiago ere ordezkatu edo aldatu zituzten.

Oihalen atalean, berriz, hainbat zentro tekniko daude: Alemania, Belgika eta Katalunia. Ikusgarria da Jacquard izenekoen irudia (Alemaniako bat eta Kataluniako bi). Makina horiek kalitate ertaineko oihalak sortzen zituzten arropa egiteko, eta Cheviot, Galesko printzea, dama-jokoaren tau-

(de tres épocas diferentes), canillero de bobinas botella y canillero para husadas de lanzadera, la continua-dobladora de hilos o las encoladoras simples para husada y madejas.

A partir de aquí se desarrollaba la confección o tejeduría, donde la fábrica se divide en dos secciones. Por un lado se encuentran las tricotosas o «telares» de boinas. Se conservan telares rectilíneos dobles que sustituyeron a los más largos de hasta diez boinas simultáneas. Su renovación se acometió primero con unidades dobles de tecnología belga y, más adelante, hasta quince unidades fueron sustituidas o modificadas por técnicos catalanes.

Por su lado, la sección de paños da cuenta de varios centros técnicos: Alemania, Bélgica y Cataluña. Resulta espectacular la silueta de los jacquard –uno alemán y dos catalanes–, que produjeron paño de mediana calidad para la confección de ropa, con motivos tipo «cheviot», «prín



Emokaduren bidezko sistemaren xehetasuna. *(Santi Yaniz)*

Detalle del sistema de accionamiento por embarrados. *(Santi Yaniz)*

la eta tankera horretako motiboak egiten zituzten, baita konbinazio geometriko soilak ere. Gaur egun ere, konbinazio horien txantiloi zulatu orijinalak gordetzen dira. Lau ehungailu jarraitu ere baditu, 1907-1908 urte ingurukoak eta La Constructora Mecánica de Sabadell enpresak eginak, Belgikako patentearekin (Ninet & Co.). Oihal laurako edo hainbat koloretako zerrendak zituzten ehunetarako kargatu ohi zituzten, oso egokiak baitziren motel bolatzeko edota estalki bihurtzeko. Nabarmentzekoa da, halaber, botiladun irazte-makina eskoziarra. Oso egoera onean dago, eta «botila», errailak, hari-kontagailua eta tolestailua gordeta dauzka oraindik ere, nahiz eta ardatz-euskarria berriki galdu duten.

Azkenik, feltroztatutako edozer artikuluk lau prozesu jarraitu behar ditu segidan: bolatzea, tindatzea, txarrantxatzea eta zurriatzea. Bolatzeko hiru bola txiki ireki, bi itxi eta oihal-garbigailu bat ditu. Piezak xukatutakoan, tindatu egiten zituzten gaur egun museoko kafetegia dagoen tokian;

cipe de Gales», «damero» y combinaciones geométricas-simples de las que aún se conservan patrones perforados originales. Cuenta también con cuatro telares continuos, datados en torno a 1907-1908, de La Constructora Mecánica de Sabadell y patente belga (Ninet & Co.). Solían cargarse para paño liso o tejido con franjas de diferente color, muy adecuado para abatanar débilmente y convertirlo en mantas o cobertores. Destaca también el urdidor botella escocés, en muy buen estado con su «botella», raíles, cuentahilos y plegador, pero cuyo soporte de husada se perdió en fechas recientes.

Finalmente cualquier artículo afieltrado debe someterse a cuatro procesos sucesivos: batanado, tintado, perchado y tundido. Para abatanar dispone de tres batanes menores abiertos, dos cerrados y una lavadora de paño. Escurridas de agua las piezas, el teñido se realizaba en el espacio que

hasiera batean, egurrezko upel birakari handitan eta, azkeneko aldietan, altzairu herdoilgaitzezko danborretan. Ondoren, produktua luzatu eta lehortu egiten da, forma gal ez dezan: azken solairuan tapakietarako eta oihaletarako egurrezko bastidoreak egon ziren (egun desagertuta), eta txapeletarako, berriz, moldeak (egurrezko pieza desmuntagarriak) eta molde-lehorgailuak (hainbat sail bertikalki oinarritzeko bastidoreak) egon ziren. Txarrantxatzeko (ilea kardu naturalez ateratzea) eta zurriatzeko (ilea moztea eta berdintzea) makinen serie osoa ere gordeta dago; bai pieza handietarako erabiltzen zituztenak, bai txikietarakoak.

Prozesuok amaitutakoan, azken ukituak eman eta bidali baino ez zuten egin behar: artikulu guztietan satinak, zorroak, zintak, etiketak, ikurrak, neurriak, eta gainerakoak erantsi, eta ondoren enbalatu. Lan horiek guztiak eraikinaren goiko eta azken solairuan egiten zituzten.

Museoan ez dute oraindik gaitu azkeneko prozesuok erakusteko gune jakin bat; hala ere, erabiltzen zituzten tresna mekanikoak oraindik ere gordeta daude, eta erakusgai ipintzea aurreikusita daukate. Dena den, tresna horiek asko berritu zituzten eta ez dira hain zaharrak ere.

Azkenik, eraikinean egin zituzten azkeneko eraberritzeen erakusle, bulegoak sortu zituzten enpresaren administraziorako eta zuzendaritzarako. Bulego hauek bisita daitezke, eta XX. mendeko lehenengo hamarkadetan girotuta daude. Barneko eskaileratik, berriz, fabrikaren jabeek zuten etxebizitza zaharrean sartuko gara. Hasiera batean zaindari batentzat zen, baina Arena sendiaren kudeatzaileak noizbehinkako egoitza gisa erabiltzen hasi ziren, ekoizpenak edo negozioen nondik norakoek fabrikan bertan egotea eskatzen zutenean. Eta guztiak beti kanpoan bizi izan badira ere, Bilbon batez ere, etxe zaharra erreferente bihurtu zen familiarentzat; horregatik, hainbat belaunaldik bertan ematen zituzten oporraldiak eta aisia-egunak tartean behin.

Lantegia museoaren oinarrizko pieza bilakatu da 2007 tik. Toki honetako giroak eta ondare-kalitateak denboran barrena bidaiatzea ahalbidetzen digute, ateak zeharkatzean.

Bibliografia

Blanxart y Pedrals, D., 1946 • Cárcamo Martínez, J., 1988 • Ibáñez Gómez, M.; Santana Ezkerra, A.; Zabala Llanos, M., 1988 • Ibáñez, M.; Torrecilla, M.ª J.; Zabala, M., 1997c • Ibáñez, M.; Zabala, M., 2003a • Iglesias, J. A.; Izarzugaza, I., 1994 • Izarzugaza Lizarraga, I., 2001, 221-232 • Izarzugaza, I.; López García, J. L.; Obispo, A.; Úbeda, C., 1991 • Lamoitier, P., 1911 • Lüdicke, A., 1935 • Torrecilla, M. J., 2006, 24-36 • VV.AA., 2002 • Zabala, M., 2001a.

hoy ocupa la cafetería del museo; primero en grandes cubas giratorias de madera y últimamente en tambores de acero inoxidable. Después el producto se seca estirado para que no se deforme: para mantas y paños hubo en la última planta bastidores de madera (hoy desaparecidos) y para boinas se dispusieron hormas (piezas desmontables de madera) y secadores de hormas (bastidores donde se apoyan verticalmente varias series). Del perchado (extraer el pelo con cardos naturales) y tundido (afeitado e igualado del pelo) se conserva también la serie completa de maquinaria tanto para piezas grandes como pequeñas.

Completados estos procesos sólo quedan el acabado y expedición: añadir rasos, forros, cintas, etiquetas, emblemas, tallas, etc. a todos los artículos, y embalarlos, pasos que se realizaban en la planta superior y última del edificio.

El museo no dispone todavía de un espacio específico para exhibir estos últimos procesos, pero mantiene los ingenios mecánicos que le dieron soporte y está previsto incluirlos en la muestra, si bien es cierto que son los que más se renovaron y tienen una menor antigüedad.

Finalmente, y como parte de las últimas reformas que tuvo el edificio, se crearon unas oficinas para la administración y dirección de la empresa, que pueden visitarse, ambientadas en las primeras décadas del siglo XX. Y por la escalera interna de comunicación se da acceso a la antigua vivienda que los propietarios llegaron a disfrutar en la fábrica. Originalmente se ideó para un guarda, pero los gestores de la familia Arena comenzaron a usarla en calidad de residencia ocasional, cuando la producción o la marcha de los negocios requerían su presencia a pie de fábrica. Y aunque todos han residido siempre fuera, sobre todo en Bilbao, la vieja casa se convirtió en un referente familiar, donde en ocasiones algunas generaciones disfrutaron de temporadas de vacaciones y ocio.

Desde 2007 la fábrica es la pieza fundamental de exhibición museística del complejo, un enclave cuya atmósfera y calidad patrimonial nos permite viajar en el tiempo con sólo cruzar sus puertas.

Bibliografía

Blanxart y Pedrals, D., 1946 • Cárcamo Martínez, J., 1988 • Ibáñez Gómez, M.; Santana Ezkerra, A.; Zabala Llanos, M., 1988 • Ibáñez, M.; Torrecilla, M.ª J.; Zabala, M., 1997c • Ibáñez, M.; Zabala, M., 2003a • Iglesias, J. A.; Izarzugaza, I., 1994 • Izarzugaza Lizarraga, I., 2001, 221-232 • Izarzugaza, I.; López García, J. L.; Obispo, A.; Úbeda, C., 1991 • Lamoitier, P., 1911 • Lüdicke, A., 1935 • Torrecilla, M. J., 2006, 24-36 • VV.AA., 2002 • Zabala, M., 2001a.